

LABRIT



KoLaboratorio Tejido Social  
Gizarte-ehuneko KoLaboratorioa



Ayuntamiento de  
**Pamplona**  
Iruñeko Udala

**zentro**  
Espacio colaborativo | Elkarlaneko gunea

# “Iruñeko gizarte-ehunaren azterketa”

## AURKIBIDEA

### **0. Sarrera**

Zer egin dugu  
Nola egin dugu  
Emitzen aurkezpena

### **1. Elkarte-baliabideak auzo eta eremuen arabera**

Erdiguneko elkarre-baliabideak  
Ekialdeko elkarre-baliabideak  
Mendebaldeko elkarre-baliabideak  
Hegoaldeko elkarre-baliabideak  
Iparraldeko elkarre-baliabideak  
Ondorioak

### **2. Herritarren partaidetza elkarre-ehunean**

Ikuspegi historikoa  
Elkartegintzaren oraina  
Auzo berriak  
Ondorioak

### **3. Partaidearen profila**

### **4. Elkarre-ehun eta auzoen arteko erlazioa**

Elkarre-ehun arteko erlazioa  
Auzoen arteko erlazioa  
Ondorioak

### **5. Eszenatoki berriak, problematika berriak eta teknologia berriak**

Teknologia berriak  
Problematika berriak  
Ikuspegi berriak  
Emitzen aurkezpena  
Ondorioak

### **6. Harremanak instituzioekin**

Ondorioak

## 0. SARRERA

Iruñeko elkarte-ehunaren ezaugarriekiko lehenbiziko hurbilketa historiko eta esperientzialak hainbat zertzelada eskaintzen dizkigu Argaren hiriaren ezaugarrien inguruan, inguruko antzeko hiriekin alderatuz, elkarte kopuru altua dagoelako. Elkarte txiki ugarietako azpiegitura komunak eta komunean jarritako bitartekoak aisialdirako eta gozamenerako leku bilakatzen dira, edo lanerako eta konpromisorako. Hala, Iruñean partaidetzarako eta elkartegintzarako dagoen berezko joeraren adibiderik nagusia da.

Fenomeno honen adierazpen nagusi eta garbiena, ziur aski, Kirol eta Aisialdi Klubak eta Entitateak dira, jatorrian, igerilekuen udako erabilerarekin lotura zutenak. Igerilekuek, hiriko historia hurbilaren une batzuetan, hiriko auzoak ordezkatu dituzte neurri handi batean, eta batzuetan, Kirol Elkarte bakoitzeko iruditeriarekin identifikatzen ziren gizarte-sektoreak ere ordezkatu dituzte. Nekez aurki daiteke antzeko zerbait gure inguruko beste hiri batzuetan.

Hala ere, indartsua bezain anitza da ezaugarri hauekiko **ELKARTEETAN** herritarrek duten partaidetza, baita elkarte txikiagoetan ere, besteak beste, gastronomikoak, kulturalak, San Ferminetakoak, kirol-arlokoak eta/edo aisialdikoak. Entitate horietako batzuen fundatzaileak, jatorrian, printzipio sozial, politiko edo erlijioso jakinekin identifikatu bazitezkeen ere, entitate gehienetan ideologia oso desberdineko eta gizarte-maila askotako bizilagunak bizi dira elkarrekin.

Iruñeari bere idiosinkrasia parte hartzailea ematen dion elkarte-egitura trinkoa oso ondo ezagututa, egia da, askotan, herritar guztientzako ekintza puntualak egiten dituzten arren, elkarte gehienak barne kohesioan eta elkartekideei bideratutako ekintzetan ardatzen dela.

Deskribatu berri dugun elkarte-sarearekin lotura duen beste sare bat dago, bizilagun- eta elkarte-mugimenduak eratzen duena, alegia. Herritar guztiei zuzentzen dizkio bere ekintzak, edo, gutxienez, dagokion auzoko esparruan edo horren sorrera eragin duen gizarte-sektorearen edo problematikaren esparruan eragiten saiatzen da. Era guztietako **ELKARTEAK** dira.

“Gizarte-ehunaren analisia” KoLaboratorioak Iruñeko auzoetako elkarte-mugimenduaren eta gizarte-ekimenaren balioa nabarmendu du.

## ZER EGIN DUGU

Espazio bat sortu dugu, topagune bat, sentsibiltate eta jarduketa-eremu desberdinetako elkarteek erabakitzeko, alderatzeko, eztabaidatzeko eta kezkek partekatzeko aukera izan zezaten. Saioetan zehar, eztabaidek, neurri handiago edo txikiagoan, honako hauekin loturiko alderdiak azpimarratu zitzaizten saiatu gara:

- Elkarte-ehunak berak zer ikuspegi duen herritarrek elkarte-egituretan duten partaidetzaren inguruan. (Partaidetza hori azken urteetan areagotu ala murriztu den...)
- Elkarte-ehunean parte hartzeko joera handiena eta txikiena duten pertsonen profilak. Profila aldatu da edo bilakatzen ari da? Nola, noiz eta zergatik?
- Elkarteen arteko erlazioak. Nola ematen dira? Noren artean?
- Elkarte-ehunaren barneko partaidetza-egitura motak. Bilakaera.
- Zeintzuk dira, antza denez, Iruñeko herritarren gaur egungo lehentasunak?
- Instituzioek egituratu gabeko elkarte-ehunik al dago? Zergatik ez da instituzionalizatzen?
- Zer neurrian dira gizartean eragin garrantzitsua duten herritar-ekimenak legezko elkartegintzaren, erregistratu gabeko elkartegintzaren (instituzionalizatu gabekoa) edo egituratu gabeko ekimen koiunturalen emaitza?
- Hiriko elkarte-ehunaren eta egitura politiko alderdikoiaren arteko erlazio kasual eta/edo kausalaren analisia.

Prozesu honek hiriko elkarte-mugimenduari estu loturiko partaideen esperientziak eta iritziak biltzeko zereginari egin dio aurre. Proiektuko emaitzek tokiko elkarte-mugimenduaren iruditeria kolektiboa eratzen duten elementu asko identifikatzen laguntzen dute.

## NOLA EGIN DUGU

“Gizarte-ehunaren analisia” KoLaboratorioan topaketa bana egin da hiriko puntu desberdinetako bost udal-lokaletan. Horietako bakoitzean, topaketari atxikitako auzoetan egoitza duten beste hainbat elkartetako bospasei ordezkariak parte hartu dute. Pertsona horiek erlazio estua dute hiriko elkarte-ehunarekin eta, zehatzago, beren auzoko ehunarekin. Partaideek profil anitzak izan dituzte, eta Iruñeko elkartegintzaren ikuspegi holistiko eta orokorra lortzea bilatu da une oro.

Grabatu eta aztertu diren iritziak, kezkek, ekarpenak eta eztabaidak txosten honetan aurkezten dira modu sintetizatuan. Horretarako, bileren edukia 5 bloke edo gai garrantzitsutan banatu dugu:

- 1) Iruñeko elkarte-baliabideak.
- 2) Hiritarren partaidetza elkarte-ehunean eta “partaidearen” profila.
- 3) Ehunaren elkarteen arteko erlazioa.
- 4) Gaur egungo elkartegintza: eszenatoki berriak, problematika berriak eta teknologia berriak.
- 5) Harremana instituzioekin eta, bereziki, udalarekin.

#### 1. SAIOA. ERDIGUNEA

Erdiguneak Alde Zaharra eta Lehen eta Bigarren Zabalguneak hartzen ditu.

Lekua: Kondestable Civivoxa.

Data: 2018ko otsailak 8.

Parte-hartzaileak: 5 pertsona (1 emakume eta 4 gizon)

#### 2. SAIOA. EKIALDEA

Ekialdeak Mendillorri, Lezkairu, Santa María la Real, Erripagaña, Beloso eta Bidezar auzoak hartzen ditu.

Lekua: Mendillorriko Civivoxa.

Data: 2018ko otsailak 15.

Parte-hartzaileak: 6 pertsona (2 emakume eta 4 gizon)

#### 3. SAIOA. MENDEBALDEA

Mendebaldeak San Jorge/Sanduzelai, Etxabakoitz, San Juan/Donibane, Mendebaldea eta Ermitagaña auzoak hartzen ditu.

Lekua: Sanduzelaiko Civivoxa.

Data: 2018ko otsailak 22.

Parte-hartzaileak: 6 pertsona (2 emakume eta 4 gizon)

#### 4. SAIOA. HEGOALDEA

Hegoaldeak Iturrama, Milagrosa/Arrosadia eta Azpilagaña auzoak hartzen ditu.

Lekua: Iturramako Civivoxa.

Data: 2018ko martxoak 1.

Parte-hartzaileak: 3 pertsona (2 emakume eta 1 gizon)

#### 5. SAIOA. IPARRALDEA

Iparraldeak Txantrea, Rochapea/Errotxapea eta Buztintxuri auzoak hartzen ditu.

Lekua: Juslarrocha Civivoxa.

Data: 2018ko martxoak 6.

Parte-hartzaileak: 5 pertsona (2 gizon eta 3 emakume)

### **EMAITZEN AURKEZPENA**

Sarreran adierazi dugun bezala, lortutako informazio guztia bost bloke tematikotan banatu da. Pribatutasuna mantendu eta errespetatzeko, esku-hartzeetan ez dira pertsonen izenak idatzi.

Jarraian aurkezten ditugun emaitzak saioen grabaketen analisi xehatuaren bidez lortu dira. Hitzez hitzeko aipamenak (kakotx artean) tartekatu ditugu esaldi sintetizatuekin eta edukien abstract-ekin batera, esku hartzen duen pertsonaren zentzua, tonua eta espiritua une oro errespetatuz.

Hurrengo orrialdeetan, saioetan bildutako edukiak ordenatzen dira txostena garatzeko. Saioak eta partaideak eremu geografikoen arabera (auzo mugakideak) antolatu diren arren, bloke tematikoetan aurkezten dira emaitzak.

Konturen bat eremu edo auzo zehatz batekin loturik aipatu baldin bada, edo elkarte jakin batekin, berariaz aipatuko da eremu, auzo edo elkarte hori.

**Tipografia arrunta:** Alderdi dinamizatzailerak partaideek adierazitako ideien inguruan egindako sinopsia.

**Letra etzana:** Partaideen hitzak eta esaldiak (kasu askotan, hitzez hitzekoak).

## **1. ELKARTE-BALIABIDEAK AUZO ETA EREMUEN ARABERA**

Bilera bakoitzeko partaide guztiei banatu zaizkie elkarte- eta instituzio-baliabideei eta hiriko gizarte-ekimenei buruzko datuen orrialdeak, auzoen arabera bereizita. Atal honetan, partaideek datuen inguruan dituzten iritziak biltzen ditugu.

### **Erdiguneko elkarte-baliabideak**

Erdigunean, hiri guztiko baliabideen zati handi bat dago. Partaideek bazekiten hori, eta datua ez zitzairen oso deigarria gertatu. Hortaz, bileran ez zen ia aipatu.

### **Ekialdeko elkarte-baliabideak**

Ekialdeko bileran, eremu horretan aurkitutako baliabideak zehaztu eta aztertu zituen dinamizatazaileak. Bertako elkarten kantitateak harridura eragin zuen (partaideak ez dira magnitudeaz jabetzen). Elkarten kantitatearen inguruko ezjakintasunak zertxobait harritu ondoren, boluntario asko dagoela adierazi zuten, nahiz eta horiek foku ugarian banatuta dauden.

### **Mendebaldeko elkarte-baliabideak**

Eremuko baliabide ugariak harridura eragin zuten. Eremuan hainbeste elkarte-baliabiderik zegoenik ez zekitela adierazi zuten.

Sentsazio orokorraren arabera, agertzen diren elkarte-baliabideen kopurua (kopuru handia) ez dator bat auzoko edo eremuko elkarten errealitatearekin.

### **Hegoaldeko elkarte-baliabideak**

Iturramako baliabideen kantitate handiak harridura eragin zuen, oro har.

- *Elkartegintzari dagokionez, basamortu batean gaudela uste dugu, eta datu horiekin konturatzen gara, askotan, gure oskoletik harago begiratzen ez dugula.*

### **Iparraldeko elkarte-baliabideak**

Iritzi orokorraren arabera, orrialdeetan agertzen diren elkarte-baliabide asko ez datoz bat gaur egungo elkarte-ehunarekin.

Gizartean aktibo dauden elkarteak eta inskribatuta baino ez dauden elkarteak bereizten dira.

Jarduketa-eremuak ere garrantzia du; izan ere, askotan ez dute auzoan lan egiten.

## **Ondorioak**

Partaideek duten sentrazioaren arabera, Iruñeko Udalaren Partaidetzako Alorrak elkarte-ehunari buruz egindako mapa ez dator bat hiriko elkarten errealitatearekin; izan ere, alorrak detektatu dituen elkarte eta ekimenen kantitatea askoz handiagoa da aurreikusitako edo egunerokoan hautemandako kantitatearekin alderatuz. Oro har, zerrendatutako elkarten kantitaterako, elkarte-bizitza gutxi dagoela uste dute.

## 2. HERRITARREN PARTAIDETZA ELKARTE-EHUNEAN

### Ikuspegi historikoa

Iruñeko elkarte-ehunaren bilakaerari buruzko hausnarketak hurrengo aipuetan ikus daitezke, eta gure lehen azterketa-ardatzaren sarrera-bloke gisa balia daitezke:

- *Elkarteek eta langile-mugimenduak garrantzi asko izan zuen 70eko eta 80ko hamarkadetan. Mugimendu hori dinamizatzen saiatu zen.*
- *80ko eta 90eko hamarkadetan, jende gehiago atxikitzen zitzaien elkarteei, eta beren helburuak lortzeko gaitasun handiagoa zuten. Gaur egun, gizarteak politikarekiko interesa galdu du.*
- *Erretiratuak asko nahasten dira boluntarioran, baina gehiago alderdi sozialean politikoan baino.*
- *Elkartasunaren gaiaren falta igartzen dut. Guztiok igaro behar dugu “nire” izatetik “gure” izatera.*
- *Gizartean inplikaturako jende asko dago, beharbada ez langile-borrokaren urteetan bezala, baina, gaur egun, sentsibiltate oso anitzeko elkarteak aurkitzen ditugu.*
- *Mundua eraldatzeko beharraren bizkar-zorroa jartzen diegu askotan, gaur egun dituzten arazo guztiekin.*

### Elkartegintzaren oraina

Partaidetza handiagoa ikus daiteke elkarteekin zerikusirik ez duten pertsonen jardura bakoitzean, elkartekideenetan baino. Jendea elkarteei atxikitzen zaie une zehatz batean etekina ateratzeko, baina ez du parte hartzen beste gai batzuen inguruan antolatzen diren gainontzeko ekintzetan.

- *Elkartegintzaren gaia gaizki doa. Behar dutenean joaten dira elkartera, eta gero han geratzen dira, baina ez dute parte hartzen.*

Herritarrek elkarte-ehunean duten partaidetza murriztu dela dirudi. Franco hil ondoren, elkarteen eta partaidetzaren eklosio oso gogorra gertatu zen alderdi guztietan, baina gaur egungo errealitatea oso bestelakoa da. Oso zailzat jotzen da partaidetza eta elkartegintza, oro har, murriztu diren ala ez aztertzea, baina euren artean zerikusi gutxi duten elkarteen ikaragarritzko aniztasuna ikusten da.

- *Horien arteko berdintasun bakarra “elkarte” hitza da.*

Gakoa deialdiarekin eta unearekin asmatzea dela azpimarratzen da. Besteak beste, 15M fenomenoarekin eta San Fermin Txikitorekin asmatu dela aipatzen da, eta, aldiz, Alde Zaharreko inauteriek, adibidez, porrot egin dutela.



- *Kattalingorri ez du jende askok osatzen, baina deialdiren bat egin denean, jendetza bertaratu da, eta kanpoko partaidetza egon da. Deialdia egiteko moduak ere eragina du.*

Hala eta guztiz ere, Nafarroak boluntarioritza-kultura oso indartsua izaten jarraitzen duela ulertzen da:

- *Boluntarioritza oso oparoa dago, “bektore” efektuko hainbat elkartetan – gehiago erakartzen dutenak– polarizatuta dagoena. Elkarte horiek handiak dira, eta jende asko bildu ohi dute.*

Kontrara...

- *Jendeak badaki auzoak bizilagun-elkartea baduela, baina, dirudenez, unean-unean baino ez dira bertaratzen, arazo zehatzak konpontzeko.*

### **Auzo berriak**

Erripagaña kasu konplexua da, lau udalen mende baitago. Bizilagun-elkartek ez du lokalik, eta, beraz, ikusgarritasuna zailtzen da, eta auzoko jende gazteak ez du asko parte hartzen.

- *Hiriaren barnean herri txiki bat eratzea da gure helburua.*

Oro har, KoLaboratorio honen saio guztietako partaide gazteenek sententzia dute aurreko belaunaldiek partaidetzaren eremuan gehiago lan egin dutela. Hala ere, salbuespen garrantzitsuak daude:

- *Iruñeko eta inguruko elkarte-ehuna oso aberatsa da. Elkarte asko dago, baina ikusgarritasuna eta horien arteko erlazioa sustatu behar dira. Elkarte-mugimendu oso handia dago Mendillorri, eta gazte askok parte hartzen dute horretan.*

Seme-alabak hazi beharrak elkartegintzaren espiritua murrizten duela uste da. Agian horregatik da zaila Erripagañan, bikote gazte asko daudenez, ehun horretan lan egitea.

- *Auzo berri batera heltzen denean, bi aukera daude: etxean gelditzea edo auzoa “egitea”.*

Auzo berri batzuen egitura urbanistikoak berak elkartegintza zailtzen duen pertzepzioa ere badago (Buztintxuri):

- *Egungo sistemak indibidualimoa sustatzen du, eta kontsumitzearen kulturen bizi gara, egitearen kulturen beharrez. Egungo egitura urbanistikoak elkartegintza oztopatzen bideratutako erabaki politikoak dira.*

Iruñeko herritarrek elkarteetan aritzeko duten joeraren eta ehun horrek gaur egun duen osasunaren inguruan beste balorazio eta pertzepzio hauek azaldu dira:

- *Iruñea beti nabarmendu da gizarte-ehun oso sendoa izateagatik.*
- *Elkartegintza-mugimendua beti dibertsifikatu izan da asko, eta kolektibo berri asko sortu dira.*
- *Gaur egun, badirudi nolabaiteko nekea dagoela elkartegintza-mugimenduan, ziur aski, Udalak, historikoki, oso gutxitan agertu baitu elkarlanaren aldeko jarrera.*
- *Ikuspegi historikoan oinarrituz, partaidetza gutxiko egoera batean gaude elkarteetan.*
- *Jende askok jotzen du kolektiboetara unean uneko arazo jakin baten eraginez, eta, gero, desagertu egiten da. Horrek, askotan, akitu eta nekatu egiten du.*
- *Kolektiboen, elkarten eta abarren aniztasun ikaragarria dago, Bakoitzak zorte desberdina izaten du bilakaera horretan, baina egia da elkarteei gutxiago atxikitzeko joera orokorra dagoela.*
- *Elkarri entzuten ez diogunez, kultura parte hartzailearen aurkako zailtasunak eta erresistentziak daude.*

## **Ondorioak: herritarren partaidetza elkarte-ehunean**

- **Partaidetza puntualaren** pertzepzioak indarra hartzen du, hots, une zehatz batean eragiten duen problematika jakin baten ondoriozko partaidetza.
- Sentsazio orokorraren arabera, partaidetza **murrizten ari da elkarte ehunean**. Hala ere, balioan jartzen da hiriko elkartegintza-bizitza oparo eta garrantzitsua.
- Elkartegintza asko dibertsifikatu da, **gai oso zehatzetako elkarte** eta kolektibo asko sortu dira, eta, beraz, kolektiboak txikiagoak dira, eta ez hain ikusgarriak.
- Bigarren eta hirugarren ondorioak kontraesankorrak izan daitezke. Hala ere, publiko asko biltzen duten elkarten kopurua (gai oso orokorrak) murriztu egin da, eta, hortaz, jende gutxiago biltzen duten elkarte gehiago dago (gai oso zehatzak). Hartara, partaidetza murrizten ari den sentsazio geroz eta handiagoa dago.

### 3. PARTAIDEAREN PROFILA

Partaidetzaren beherakada orokorra hautematen ari da gizarteko segmentu gaztean, eta pertsona helduen (+50) segmentuaren gorakada. Pertsona heldu horiek, beharbada, zahartzaro aktiboa eta parte hartzailea izan nahi dute eta/edo izaera parte hartzaile nabarmena duten belaunaldietakoak dira, ageriko asaldura soziopolitikoak jasan dituzten hamarkadetan zehar izan duten konpromisoaren emaitza gisa.

Zergatik hautematen da gazteen beherakada hori elkarte-ehunaren baitako partaidetzan?

- *Gazteen artean, bestalde, aldaketa bat eman da aisialdi-ereduetan.*
- *Gizarte-balioen krisiarengatik eta/edo elkartegintza mobilizatzen duten buruzagien faltagatik.*
- *Lege-aldaketak partaidetza oztopatzen duten exijentziak ekarri ditu berekin.*
- *Beti egiten du tira oso jende gutxik gurditik, eta masa isil batek babesten ditu, ala ez.*
- *Oso zaila da arazo larriak dituzten pertsonen elkartegintzan jarraitzeko eskatzea, nahikoa baitute bizirautearekin.*

Erdiguneko bileran, gai horren inguruan hausnartu zen, eta modu autokritikoan balioetsi zen elkarte “tradizionalak”, publiko gaztea erakartzeko orduan, “zaharkituta” geratu ahal izana.

Hala ere, herritarren partaidetzaren pertzepzioa oso subjektiboa dela adierazi da, eta ez dirudi, benetan, iraganean baino txikiagoa denik. Egiten den deialdi zehatzaren arrakastaren mende dago dena, eta faktore askoren arabera da hori.

- *Partaideen profila ez da asko aldatu.*

Beste hiri batzuek ez dituzten herri-dinamika parte hartzaileak ditu Iruñeak. 90eko hamarkadan, militantzia eta herri-mugimenduak oso indartsuak izan ziren. Euskal Jaik mota anitzeko kolektibo asko batu zituen (San Agustin kaleko Euskal Jai pilotalekua izan zenaren okupazioa, gaztetxe bilakatzeko).

Elkarte-ehunean parte hartzeko joera duten pertsonen jatorri sozial, politiko eta/edo ideologikoari dagokionez, muturreko bi profil aipatu dira; alde batetik, jendearen partaidetza tradizionalki nekez eragiten den populazio-segmentuak, besteak beste, ijitoen populazioa:

- *Partaidetzarik eza da bazterkeriaren ezaugarrietako bat.*

Bestalde, elkartegintzarako joera handiagoa duten populazio-sektoreak, gutxienez, Iparraldean:

- Mundu abertzaleak eta euskaldunak beti izan dute parte hartzeko joera handiagoa.

Iparraldeko saioko partaideetako batzuek uste dutenez, sektore horietatik, urte askoan zehar, partaidetza sustatu egin da eta...

- *Ian handia egin dute hemengo ekintzak sustatzen eta hedatzen, baina, gaur egun, beste kutur jarduera batzuk sartu behar dira.*
- *Ehun abertzale horrek partaidetza sustatzeko duen gaitasuna aitortu behar da, baina, orain, beharbada, proiektu eta ekimen berrietara ireki beharko da.*

Pertzepzio orokorraren arabera, Mendillorri izan ezik, elkarte-ehunean parte hartzen duten pertsonen adin-profilak aldaketa argia jasan du (adina igotzeko joera), baita motibazioak ere (ez hain politikoa eta sozialagoa). Pertzepzio hori, gainera, sendotu egin da. Hala ere, pertzepzioa ez da unibokoa:

- *Gizarte-gakoak aldatu egin dira kolektiboetan sartzen den jendearen profilean.*
- *Aisialdirako erak aldatu egin dira, kalea ez da jada hainbeste erabiltzen.*
- *Bideak eta aukerak sortuz gero, jendeak ehunarekiko interesa azaltzen eta bertan parte hartzen du.*
- *Gizarte-konpromisoak asko eskatzen du. Pertsona bakoitzak bere errealitatea du, eta askotan zaila izaten da parte hartzea eta konprometitzea.*
- *Elkarte eta partaide gehienek profil altruista dute.*
- *Elkartegintza-mugimendua oso gozokaitza da askotan. Profil zehatz bat eduki behar da.*
- *Partaideen profila ez da aldatu, berezkoa da, ezaugarri horiek barruan eramaten dira. Problematikak aldatzen diren arren, profila berbera da.*
- *Partaidearen profila hau da: 40 eta 50 urte bitarteko emakumea.*
- *Ehunean parte hartzen duen jendea heldua izaten da, adin handikoa.*
- *Pertsona boluntarioek konpromiso oso sendoa izaten dute.*
- *Pertsona aktibistek asko egiten dute lan.*
- *Parte hartzen duten pertsonak alderdi guztietan parte hartzen dute.*
- *Partaideen profila hau da: gizarte-langile peto-petoa, kezkekin eta lan egiteko gogoarekin.*
- *Gaitasuna eduki behar da.*

## **Partaideen profilari buruzko ondorioak**

- Ez dago profil zehatzik elkarte-ehunean parte hartzen duen pertsona definitzeko. “Parte hartzen duten pertsonak alderdi guztietan parte hartzen dute”. Parte hartzeko joera pertsona bakoitzaren eta izaeraren berezko zerbait dela irizten jarraitzen da, profil soziala, politikoa eta kulturala edozein delarik ere.
- Hala ere, ahots askok adierazten dute elkarte-ehunean parte hartzeko hautua egiten dutenen batez besteko adina igo dela.

## 4. ELKARTEEN ETA AUZOEN ARTEKO ERLAZIOA

### Elkarteen arteko erlazioa

Elkartek, erlazionatzen direnean, profil, gai edo problematika bereko beste elkarte batzuekin egiten duten pertzepzioa sumatu daiteke. Erlazio nahiko sektorialak eta gaurkotu samarrak.

Batzuek diotenez, beren buruan oso ardaztuta zeuden elkarteak, eta ez ziren bizilagunengana hurbiltzen.

- *Gizarteko esku-hartzeari dagokionez, oso berria da komunitate-ikuspegia. Zergatik? Politika publikoek aspektu horri jaramonik egin ez diotelako.*
- *Interrelazioaren alderdiari dagokionez, elkarte guztiak dira antzekoak, guztiak konfort-esparruan instalaturik daudelako eta guztiek beren bezeroentzat lan egiten dutelako.*

Kokapen geografikoak zertxobait eragiten du egoera horretan; izan ere, elkarteek, egoitza auzo batean duten arren, ez dute beti auzo horrentzako bakarrik lan egiten.

Kolektibo eta elkarten arteko erlazioa funtsezkotzat jotzen da. Zenbait elkartek (Down sindromea) erlazio hori sustatu dute hainbat ekintzaren bidez.

LGTB kolektiboa elkarte sektorialen paradigma izan daiteke: txikia eta oso anitza da. Beti begiratu dute barrura, kanpora gehiegi erlazionatu gabe. Besteak beste, Auzoenea ondoan garatu dute elkarbizitza, baina ez dira ia elkarlanean aritu. Kritika egiten ari dira beste elkarte batzuekiko erlazio faltaren inguruan. Kolektibo horretara jotzen dutenen adin-segmentua oso gaztea da, baina konexio gehiago falta da. Kolektibo horretan beti egon dira funtsezko eta erreferentziazko pertsonak.

Beste ahots batzuek adierazten dutenez, bai, zubiak eraiki nahi dira beste elkarte batzuekin.

- *Elkartzen garenean "la ostia" gara. Jendeak, batzen denean, indar handia du, pentsatzen duena baino askoz gehiago.*
- *Elkarteen arteko erlazioa funtsezkoa da.*

Etorkinen arretarako elkarte batek hau azpimarratzen zuen:

- *hemengo (Nafarroa) pertsonen aitortza funtsezkoa da, eta indarrak ematen ditu lanean jarraitzeko.*

Beste elkarte batzuekin erlazioa dutela egiaztatzen dute, eta, gaur egun, Udalarekin egiten dute lan, San Fermineko txosnetan beste kolektibo batzuekin parte hartzeko.

- *Kolektiboen arteko erlazioa oso aberasgarria da.*

Scout-ek elkarten arteko erlazioa sustatzen dute, eta elkarri eragiten saiatzen dira, baina hori gehiago azpimarratu behar dela uste dute.

- *Kasu batzuetan, kolektibo guztiekin bilera bat egiten saiatu zen, baina ez zen inor agertu.*
- *Talde asko oso txikiak direnez, erlazioak zailak izaten dira.*

Kolektiboek gako politikoei erantzun beharko lieketela aldarrikatzen duenik ere badago, baina ez gako alderdikoei. Kolektiboetan sartzen den jendeak askotan gako alderdikoiak dituela uste da, eta, hala, horien arteko erlazioak “kutsatzen” direla. Zentzu horretan, administrazioan ere hori bera gertatzen dela ulertzen da.

Bestalde, “hiri-mailan” lan egiten duten elkarteek ez diote hainbesteko arretarik ematen bizilagunen lanari. Gakoa, beraz, elkarteen eta ekimenen arteko komunikazio- eta konexio-mailan dago, baina, tamalez, baxua da.

- *Ez dugu elkar ezagutzen eta ez du ezer egin elkar ezagutzeko.*
- *Antzeko zenbat gauza egiten ari gara? Zenbat gauza partekatu genitzake inpaktu -mailako emaitzak hobetzeko?*
- *Erronketako bat gainontzeko elkarteei gehiago irekitzea izan beharko litzateke, gure artean ezagutzea, interrelazioa oso aberasgarria da-eta.*
- *Elkarte desberdinen artean proposamen komunak egitea oso onuragarria izan daiteke, baina asko kostatzen zaigu ados jartzea.*
- *Askotan, kolektibo bakoitzak berea baino ez du begiratzen, hau da, bere ziliborrera, eta begirada global hori oso interesgarria izan daiteke.*
- *Kontaktu pertsonalak garrantzi handia du, “aurrez aurre” jartzeak.*
- *Gaur egun interrelazio gutxiago dago elkarteen artean; izan ere, lehen, biltzea eta erlazionatzea helburu zuten koordinadorak zeuden.*
- *Buztintxurin, bai, elkarte desberdinen arteko erlazio hori dago, neurri batean, auzo oso txikia delako eta elkarte guztiek lokal komunitario berbera partekatu behar dutelako.*

### **Auzoen arteko erlazioa**

Oro har, Iruñeko bizilagunek beren auzoarekin identifikazio oso sendoa dutela pentsatzen da, jendea oso loturik eta identifikaturik dagoela bere auzoarekin.

- Sanduzelaik, adibidez, hesi naturalak dituenek, pixka bat isolaturik dago, eta horregatik, berezko identitate sendoagoa garatu du.

Bestalde, adostasuna dago Iruñeko gizartearen ezaugarri honen pertzepzioaren inguruan: jende guztiak parte hartzen du sozialki alde zaharrearantz, eta, era berean, asko mantentzen dira auzoen berezitasunak.

Ekialdeko elkarteen artean egindako saioan (Erripagaña, Lezkairu, Santa María la Real, Mendillorri, Bidezar), elkartasun interesgarria eman zen bertan zeuden pertsonen artean:

- *Oso interesgarria litzateke ekialdeko eguna, gure eremukoa, antolatzea. Horrela, egun horretan, auzoetako jarduera deszentralizatzen da eta komunitate zabalago batean pentsatzen dugu, bizikidetzakomunitatean.*
- *Bera Bidezarrekoa da, eta beti eskatu diete laguntza Mendillorriko gazteei hainbat ekintza antolatu eta horietan parte hartzeko. Auzoen eta kolektiboen arteko erlazioa eta kolaborazioa oso aberasgarria da.*
- *Erripagañako bizilagun-elkarteak erlazioa du hiri guztiko bizilagun-elkarteekin.*

Azkenik, elkarte-ehunaren partaidetzari buruzko saioen deialdia oso iradokitzailea izan da:

- *KoLaboratorioen ekimena oso interesgarria da; izan ere, horren bidez, beste elkarte batzuk ezagutzen ditugu komunitate-ikuspegietan sartu ahal izateko.*

## **Ondorioak**

- Oro har, elkarten artean erlazionatzeko joera txikia dago. Hala ere, gai berdina lantzen duten kolektibo edo elkarten arteko erlazioa dago.
- Kolektibo eta elkarte desberdinen arteko erlazioak duen garrantzia balioan jartzea, elkarri aberasteko eta proposamenak eta ekintzak batera gauzatzeko.
- Auzoetako koordinadoreen garrantzia, elkarte-ehunean zubiak eta erlazioak sortzeko.
- Auzoek identitate oso zehatza eta berezkoa dute, baina erlazioa dago horien artean.
- Oro har, Alde Zaharra herritarren partaidetzarako topagune naturala dela pentsatzen da, jende guztia “etxean bezala” sentiarazten duen batasunaren katebegia.



## 5. ESZENATOKI BERRIAK, PROBLEMATIKA BERRIAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

Bi alderdi daude elkartegintzan: herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzua eta instituzioaren barneko elkarte-bizitza. Eskaintzen den zerbitzua boluntariotzan oinarritzen denean, elkarte-bizitza hori egon behar da.

Asko dira alderdi bikoitz hori eskaintzen duten elkarteak. "Igerilekuak" eta peñak muturretan egongo lirateke, baina horien artean herritarrei zerbitzuak eskaintzen dizkieten elkarte asko daude, barneko elkarte-bizitza duten bitartean.

Batzuek argudiatzen dutenez, berezko erreferentzia kultural eta historikoak galdu dira, eta gazteek ez dituzte erreferentzia horiek ezagutzen eta ez dituzte ezagutu nahi. Hala ere, beste batzuek hausnartzen dutenez, elkarte askok erabiltzen dituzten metodoak duela 20, 30 edo 40 urteko egoerarekin bat datoz, eta jaiotzen diren beste elkarte berri batzuek "akats" berdina egiten dute.

- *Zentzu horretan, barne-iraultza bat behar da, metodo zaharrak jarraituz gero, ez direlako gazteak erakartzen. Elkarteetara hurbiltzen diren gazteek profil teknikoagoa dute, ez hain boluntarioa.*

Giroan nabari den pertzepzioaren arabera, elkarteetara hurbildu zitezkeen boluntarioek ez dute hala egiten, sartu ahal izateko baldintzak betetzen ez dituztela uste baitute.

- *"Inolako ekarpenik egingo ez dudanez, ez naiz hurbilduko; ez naiz teknikoa" pentsaera dago. Komunikazio-arazo bat dago; ez da ondo transmititzen eta are gutxiago gazteei.*
- *Kattalingorri elkartean gorabeherak egon dira militantzian eta mobilizatzeko orduan. Adibidez, homosexualen arteko ezkontza onartu ondoren, beherakada oso handia egon zen.*

Dirudienez, gutxieneko adostasuna dago egitate honen inguruan: kaleak biltzeko espazio izateari utzi dio; gazteak, adibidez, etxabeetan elkartzen dira.

Antza denez, asko dira egoerari eragiten dioten faktoreak:

- *indibidualismoa, nekea, asperraldia...*
- *Elkarte-mugimendua pisua galtzen ari da Nafarroa osoan.*
- *Lidergoa behar da, masa gidatuko duen eta parte hartzen lagunduko duen pertsona baten irudia.*
- *Beste kontu bat da ea elkarteek jende berriari parte hartzen uzten dioten edo, besterik gabe, dagoeneko eraikita eta ezarrita dagoenera batu daitezela bilatzen al duten.*
- *Partaidetza-mekanismoak sustatzen ari dira edo suak ikustera joatearekin konformatu behar al dugu?*

Antza denez, Mendillorriko elkartegintzaren esperientziak aurka egiten dio joera horri, elkarteen eraginkortasunaren eta partaidetza-mailaren ondorioz. Hortaz, berehala erlazionatzen da auzoaren "heldutasunarekin", adin-tarte aktiboetan eta konpromisoa hartzeko prest dauden pertsonen dagokienez:

- Belaunaldien auziak garrantzi handia du Mendillorriin, bertan jaiotzen diren gazte askok auzoarekiko atxikimendu-sentimendu handia baitute.

Partaideetako batek, Txantreako bizilagun ohia denak, iparraldeko auzoa aspaldi izan zenarekin dauden antzekotasunak aipatu zituen, gazteen inplikazioari eta elkartegintzaren ahalmenari dagokienez:

- *Idea asko eta gogo handia dago Mendillorriin, baita ehun oso indartsua ere.*

### **Teknologia berriak**

Teknologia berrien, sare sozialen eta belaunaldi berriek smartphone-arekin egiten duten erabilera etengabearen eraginak aurkako jarrerak sortzen ditu, horien ondorioei dagokienez, belaunaldi horiek elkarte-bizitzan duten partaidetzan:

- *Falta zaiona eskatzeko biltzen da jendea, asko indibidualizatu da, jada ez da modu kolektiboan eraikitzen.*
- *Teknologia berriek gazteak isolatu eta indibidualizatzen dituzte, eta elkartegintzaren aurka doa hori.*
- *Teknologia berriak, kasu horretan, komunikazio-tresna nagusiak dira.*
- *Sare sozialak erabili ditzakegu, "zurea nirea da" sustatzen duen elkartegintza globalizatzeko.*
- *Mugimendu edo deialdi batek sareetan izan dezakeen inpaktu masiboa askotan ez da islatzen kaleko benetako mobilizazioan.*
- *Teknologia berriek kolektiboen hedapenari eta kudeaketari laguntzen diete.*
- *Era berean, egia da teknologia hauek, askotan, kontaktu pertsonala, hots, elkartegintzan oso garrantzitsua den ezaugarria, oztopatzen dutela.*
- *Teknologiak tresna gisa laguntzen dute, baina ez diote gizarte-konpromisoari laguntzen.*
- *Sare sozialek kontaktu-sare berri eta garrantzitsuak sortzeko balio dute, eta prozesuak bizkortzen dituzte.*
- *Teknologia berriak "mehatxu eta aukera dira, aldi berean". Orekan dago gakoa, beti bezala.*

Hala ere, aipatutako gaien artean, elkarte askok partekatzen duten arazoa dago: elkarteek erabiltzeko gaitu diren lokal edo espazioen falta. Pertzepzio orokortua da hori, salbuespen argiak dauden arren (Mendillorri, Buztintxuri).

### **Problematika berriak**

- *Udalak hobe kudeatu behar du **tutoretzapeko pisuen** gaia; izan ere, kasu gehienetan, instituzioak bloke oso bat erosten du pisu mota horietara bete-betean zuzentzeko, ghettoak sortzen ari direla kontuan hartu gabe.*
- ***Krisia inflexio-puntu izan da** egungo elkartegintzarako; jendea asko batu du, eta konpondu beharreko problematika berriak sortu ditu. Gizarte-larrialdietarako elkarteak beharraren ondorioz sortu dira.*
- *Elkartegintzak nahiz gizarteak krisiaren “aje” post traumatikoa bizi dugu, hori errepikatzeko beldurrarekin. Krisiaren eraginez, aurkako bi polo bizi izan dira, ekimen oso interesgarrien gorakadatik individualismo muturrekoraino.*

### **Ikuspegi berriak**

Ikuspuntuetako beste batek elkarte-mugimenduaren inguruko axolagabekeria eta, neurri batean, ezjakintasuna daudela erakusten du. “Eta egiten duzuen horrek zertarako balio du? Zer irabazten duzue?” ideia orokortu da.

- *Jendea, lehen, askoz gehiago mobilizatzen zen, baina horretarako arrazoi gehiago zeuden. Gaur egun, bizi-kalitate gehiago dago, eta jendeak bere kabuz lor ditzake baliabideak; lehenago, ordea, maila kolektiboan soilik lor zitezkeen.*
- *Jendeak ez du uste, kalera ateraz eta gizarte-mugimenduan parte hartuz, benetan aldaketak lortuko edo gauzak hobetuko direnik; iraganeko belaunaldiek, oster, hala uste zuten.*
- *Mobilizazio-gaitasuna galdu da, eta horrekin gauzak aldatu daitezkeen pertzepzioa ere. Lo gaude.*
- *Errealitatea desberdina da, eta horregatik bilatu behar ditugu mobilizaziorako eta partaidetzarako tresna berriak, baina gizartearen kezka ez da txikiagoa gaur egun.*

## Profesionalizazioa

Elkarte-mugimenduaren barne ekintza edo funtzio batzuen aldetik gertatzen den profesionalizaziorako joera geroz eta handiagoak arazoak sor ditzake zenbait alderditan, gonbidatutako pertsonen arabera.

- *80ko hamarkadaren hasieran, beherakada izugarria egon zen hiriko gizarte-mugimenduan; izan ere, kolektiboetako jendeak kargu adierazgarriak bete behar izan zituen administrazioan, eta, beraz, buruzagirik gabe geratu zen mugimendua.*
- *Elkartegintzan jarraitutasuna lortzeko, lehiaketa bat balitz bezala pentsatu behar da. Egun batean partida irabazten da, baina berehala pentsatu behar da hurrengoan.*
- *Egungo elkarte-mugimenduan, profesionaltasunerantz jotzen da, bai boluntarioran bai militantzian. Izan ditzakeen akats guztiez gain, profesionaltasunak sare oso interesgarriak sortzen eta hedatzen ditu.*

Eremu honi dagokionez, ekintza prebentiborako udal-taldeek hausnarketa zehatzak aparteko aipamena merezi du:

- *Hiriaren itxaropen handiena ekintza prebentiborako taldeetan dago, auzoen eta kolektiboen arteko sareak sortzen ari baitira.*

## Ondorioak

- Auzo edo eremu bakoitzak, gainontzekoekin alderatuz, ezaugarri demografiko bereziak eta bereizgarriak ditu, eta elkarte-ehunari eragiten dio horrek. Mendillorin, adibidez, gazte-mugimenduak pisu handia du, auzo horretan gazte asko daudelako.
- Errealitatea aldatu egiten da, eta, horrekin batera, elkarte-ehuna. Teknologia berriek eragin handia dute ehunean, alderdi positiboekin (komunikazio-ahalmena eta informazioaren dibulgazioa) eta negatiboekin (kontaktu pertsonalaren galera eta indibidualizazioa).
- Elkartegintzaren joerak eta problematikak aldatu egin dira, eta kolektiboak "atomizatu" egin dira, gai oso zehatzen eraginez.
- Ehunaren profesionalizazioa nabarmendu beharreko alderdi bat da, aspektu positiboekin (arazoak konpontzeko eraginkortasuna) eta negatiboekin (boluntariora galdu egiten da, edo ez du bere lekua topatzen).
- Gizarte geroz eta indibidualista batean bizi gara, eta elkartegintzak bere lekua topatu behar du tresna, ikuspuntu eta planteamendu berriekin.

## 6. HARREMANAK INSTITUZIOEKIN

Atal honetan, bost saioetako hausnarketak eta ekarpenak aurkeztuko ditugu ahalik eta modu zuzenean, eta Iruñeko elkarte-ehunaren ordezkariak instituzio publikoekin duen erlazioaz hitz egin dezala utziko dugu eta, batez ere, Iruñeko Udalarekin duen erlazioaz.

- *Erlazio oso berria dugu instituzioekin. Orain arte erlazio oso gutxi izan dugu; instituzioek erabateko **ulertezintasuna** eta axolagabekeria erakutsi dute. Gure kasuan, edozein instituziok kudeatzen duen ideologiak eragina du guregan, dagoen ezjakintasunaz gain. Orain, instituzioen aldetik, **hurbilketa** bat ematen ari da, baita sentsibilitatearen gorakada bat ere.*
- *Instituzioekin ez dugu sekula arazorik izan, nahiz eta orain **irigarriagoak** diren eta horiekin hitz egin daitekeen.*
- *Elkarte aldarrikatzaile batekoa naiz ni, bizilagun-elkarteak auzoa hobetzeko dira-eta. Zentzu horretan, instituzioarekin izan ditugun erlazioak ez dira hoberenak izan, nahiz eta azken urteetan **hobetzen** ari diren. Historikoki beti eduki izan da erlazio handiagoa Gobernuarekin Udalarekin baino. Hala ere, gizarte-organismoek eta Udalek **batera lan egiten ikasi** behar dute.*
- *Erlazioa biziagoa izan da Gobernuarekin Udalarekin baino, eta azken urteetan hurbilketa horrek hobera egin du. Elkartearen proposamenak praktikan jartzea hobetu behar dute instituzioek. **Gauza bat da zuri entzun diezazutela eta beste bat da parte hartzea. Batera lan egiten ikasteko ariketak falta dira.***
- *Elkarteek instituzioen erantzukizun berberak ditugu; izan ere, elkarteak arrazoi guztia duela uste du askotan, edo jende asko ordezkatzeko duela, batzuetan hala ez den arren.*
- *Noiz edo noiz, instituzioekin edukitzen diren erlazioak pixka bat “frikia” dira. Zenbait instituziok modu horizontalean egiten dute lan, baina beste batzuek jarrera eta funtzionamendu oso hierarkikoak dituzte, hala izan beharko ez lukeenean. Berdinetik berdineren egon behar da, **arreta ematen dizutela sentitu**. Instituzioarekiko erlazioak, emankorrak izan dira udal-gobernu berriaren aldetik.*
- *Gauzak lortzen diren neurrian, helburu horiek zituzten mugimenduak desaktibatzen dira. Instituzioek gestore direla jakin behar dute, baina askotan ez dute kontzientzia hori. Elkarteek hartzen dituzten eremu desberdinek eragin handia dute instituzioek eskaintzen duten tratuan, batez ere, **unean uneko agintariaren ideologiarengatik**.*
- *Interesgarria litzateke hainbat elkarteren irizpideak batzea, ekintzak eta Udalarentzako eskaerak batera egiteko, batzuetan berbera eskatzen dugu-eta. **Aliantzak** bilatu behar dira.*

- Udalak **entzun** egin behar du, lurreko pH-a ukitu behar du.
- **Bizkortasunean eta proaktibitatean** asko hobetu da.
- Entzuten dute, entzun egin nahi gaituzte, baina gauzak jada **abiaraztea** falta da.
- Udalei planteatzen dizkiegun arazoak **konpontzen** ari dira.
- Administrazioak gehienetan oztopoak jartzen ditu lagundu beharrean. Komunikazio zuzenak huts egin du.
- Egungo Udalarekin erlazio ona dute eta erraztasunak ematen dituzte, baina Udalean aldaketarik gertatuko den **beldurra** dute nolabait.
- Gaur egun **erlazioa handiagoa dago** Udalarekin. Komunikazio-bide askoz gehiago zabaldu dira. Eskuineko gobernuek ez dute balioesten elkarte-mugimendua.
- Eskuineko gobernuek elkartegintzaren beldur dira, ezin baitute kontrolatu.
- Gaur egun, administrazio-makineria ez dago partaidetzara ohituta. Kolektiboek beti izan behar dute **independentzia** administrazioaren aurrean, jarrera kritikoa mantendu behar da.
- **Udala jendeari gehiago hurbildu zaiola** hautematen da, baita komunikazioa hobetu dela ere. Baratzeen kontuari dagokionez, nabarmena da.
- Gauzak hobetzen saiatzen jarraituko dugu, eta Udalarekin talka egingo dugu, baina horrek ez du esan nahi harremanetan **hobekuntzarik** sumatzen ari ez garenik.
- Entzun egiten dute eta gauzak errazten dituzte, eta hori balioetsi behar da.
- Egungo Udalarekin oso erlazio onak daude, eta erraztasun handia ematen dute ekintzak gauzatzeko. Parrokiatik hainbat Scout talde irten zirenetik, erlazio handiagoa izan dute instituzioekin.
- Arrosadian eta Azpilagañan jarri den partaidetza-prozesuak mugimendu parte hartzailea ahuldu du, ez baita ondo kudeatu. **Gerora arreta onik jaso ez duten itxaropenak sortu dira.** Prozesu parte hartzaileak gaizki eramaten direnean, partaidetzarekiko ilusioa galdu egiten da.
- Askotan, bonbardaketa bat gertatzen da partaidetzaren gaiarekin, baina, errealitatean, elkarte askok ez dute gehiagorako ematen, ez dira heltzen; izan ere, beren prozesu parte hartzaileak dituzte dagoeneko. **Hainbeste partaidetzak gaixotu egingo gaitu.** Partaidetza goitik eraikitzen saiatzen ari da. Instituzioarekiko erlazio berria onuragarria da, baina gai hori modulatu eta konpentsatu behar da, hots, “parte hartzen dut” eta “zertarako?”.

- Aldaketa-itxaropen oso handiak sortu dira Udal berri honekin, eta, elkarte- eta kolektibo-mailan, badirudi **itxaropen horiek betetzen ari ez direla**.
- Bestelako lan-ildo eta politikak sortu dira, beste Udal batzuetan zeudenekin zerikusirik ez dutenak, bizilagunen partaidetzarekiko **sentsibilitate askoz handiagoarekin**.
- Arrosadian, proiektu parte hartzailea ez da arrakastatsua izan, ez partaidetza-mailan ez emaitza-mailan. Auzoan kontrako efektua lortu da, eta **jendea nahiko erre da**; izan ere, Udalaren herritarren arteko erlazioek bertikalak izaten jarraitu dute.
- Auzoko foroetatik eta kolektiboetatik egiten diren ekimen eta proposamenak **ekintza konkretu bilakatu** behar ditu Udalak. Hori guztia benetako ekintzetan hezurmamitu behar da, eta ez aireak daramatzen hitzetan.
- Horrekin guztiarekin, Udalarekiko konexioa eta komunikazioa hobetu egin dira, eta herri- eta gizarte-ekimenak **gehiago errazten ditu orain**.
- Neurri zehatzagoak, **nabariagoak** eta agerikoagoak behar dira.
- Akatsak akats, gaur egun erlazio **askoz hurbilagoa** eta errazagoa dago Udalarekin, aurreko gobernuekin alderatuz.
- Itxaropen asko sortu ziren Udal berri honekin, eta ez dira betetzen ari, ezta are gutxiago ere. **Erritmoa 0 da**.
- **Entzuten dute, baina ez dute jarduten, eta ezer ez egitea baino okerragoa da hori**.
- Itxaropenak oso altuak ziren Udal berri honekin, baina errealitatea beste bat da, neurri batean, administrazioaren erritmoak azkarrago joan ezin duela ematen duelako. **Asmoa egon badago, baina egikaritzea ez da asko desberdintzen aurreko udalekin alderatuta**.
- **Sortu diren itxaropen handiegietan** dago arazoa. Ezin dugu itxaron udal berri batek hiru urtetan egin dezala 40 urtetan egin ez dena.

## Ondorioak

- Oro har, partaideek pertzepzio berbera dute instituzioekiko erlazioen balioespenari dagokionez: **hobetu egin dira**. Gaur egun, elkarteek eta kolektiboek erlazio errazagoa mantentzen dute Udalarekin.
- Nolabaiteko asperraldia ikusten da hainbat elkarteren aldetik, **sumatutako egikaritze faltaren** aurrean. Kasu guztietan azpimarratzen dira, hori bai, udal-kudeaketaren arduradunen “aldaketak” eragindako itxaropen altuak.
- Ikusmoldeagatik gehien goraipatu den eta egikaritzagatik gehien kritikatu den eremuetako bat, hain zuzen, **prozesu parte hartzaileei** dagokiena da; izan ere, antza denez, egiaztatu gabeko egikaritze-itxaropenak sortzen ditu.
- Horrek guztiak marrazten duen irudiak nolabaiteko **desilusia erakusten du; izan ere, hasiera batean, aurreko egoerarekin alderatuz, hobekuntza nabaritzat jotzen ziren prozesuek emaitza gutxi ekarri dituzte**, udalaren eta herritar- eta bizilagun-elkarteen arteko erlazioari dagokionez.